



LIBURUTEGI NAGUSIA
BIBLIOTECA GENERAL

LIBURUTEGI NAGUSIKO
MEMORIA

2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANTZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Liburutegiko jarduera guztiak oraindik bizi dugun osasun-krisiak baldintzatu ditu. Martxoaz gerostik, baliabideak eskuratzeak eta erabiltzaileei arreta emateak erabilera ez-presentziala areagotu du. Irakurketa Aretoak sarrera itxi behar izan zuen lehenik, eta gero materialen erabilera arautu eta mugatu behar izan zuen, behar zen berrogeialdia gordetzeaz gain. Material digitalen erabilerak gora egin du neurri handi batean.

01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1

Arloko arduraduna: 1

Liburutegiko Goi-mailako teknikariak: 4

Liburutegiko Erdi-mailako teknikariak: 2

Liburutegiko administrariak: 2

Mandatarari mendekoa: 1

Bi laguntza teknikorako kontratuak izan dugu: bata, Ikertu enpresari esleitutako Kultura Ondarearen funtsak prozesatzeko; bestea, Eki enpresarekin, argitalpen seriatuen datuak eguneratzeko; bestela, datu horiek, Irakurketa Publikoko Sarera migratzean, galdu egingo ziren.

02/ Lokala, instalazioak eta ekipamendua

225 m²-ko irakurgela, 12 irakurketa-postu, Interneterako sarbidea duten 2 ordenagailu, inprimagailu 1, fotokopiagailu-digitalizatzaile 1, mikroformen irakurgailu 1 (papera eta digitala).

Lantokia: 144 m².

Hiru gordailu Lakua II-ko 2. sotoan, armairu trinkoak dituztenak. A Gordailua, 283m²; C Gordailua, 322 m² eta D Gordailua, 156 m².

25 m²-ko gela bat Lakua II-ko 1. sotoan, telebista-monitorea eta bideo erreproduzitzailea dituena.

Guztira, liburutegi osoan dauden apalategiko metro linealak 6.880 dira.

Liburutegiaren kudeaketa guztia **AbsysNet** programaren bidez egiten da. Programa hori Liburutegi Nagusia buru den Bibliotekak Sarean sartuta dauden Eusko Jaurlaritzako sailtako liburutegi guztiek erabiltzen dute. Azaroan, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartu ziren, eta, ondorioz, Bibliotekak Sarea desagertu egin zen, sare berriaren sukurtsal izatera pasatu baitzen

03/ Zerbitzuak eta jarduerak

Liburutegiaren eginkizun nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen informazio-beharrak asetzera da, eta, horretarako, monografiaren eta erreferentzia-lanen **92.848** ale eta argitalpen seriatuen **3.162** izenburu ditu, baita datu-baseen (**13**) eta aldizkari elektronikoen (**95**) harpidetzak ere.

03.1. ESKURATZEAK

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren, Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Lehendakaritza Sailaren aurrekontu-partidekin eskuratzen dira funtsak. Era berean, aipatutako sailetako eta Lan eta Enplegu, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio, eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailetako bulegoetako liburu-erosketak kudeatzen ditu. Katalogoko tituluak ere gehitu egin dira, beste erakunde batzuek eta partikularrek trukeak edo dohaintzak egin dituztelako.

Sartutako monografiak, guztira: **1.100**

Eskuratutakoak: **282**

Kosturik Gabe: **818**

Hemeroteka: aldizkari elektronikoetarako **3** harpidetza berri daude.

03.2. KATALOGAZIOA ETA PROZESU TEKNIKOA

Monografiaren **2.020** titulu prozesatu dira

Hemerotekan **9.332** ale sartu ziren

Monografiaren **1.187** sumario digitalizatu dira

Kultura-Ondaretik datozen argitalpenen katalogazioa amaitu da. Liburutegiko funtsei gehitzen ez zaizkien tituluak eta zenbakiak erakunderen bati eskainiko zaizkio.

03.3. AZALEZTATZEA

2020an, **3.974,48** euroko aurrekontua onartu zen El Mundo egunkaria koadernatzeko (gure liburutegiari dagokio gordetzea, Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoaren erabakiz) eta aldizkarietako 6 izenburu. Guztira, 69 liburuki eta hondatutako liburu 1 azaleztatu ziren.

03.4. MATERIAL BIKOIZTUEN ESKAINTZAK

Liburutegiak bikoiztuen 3 eskaintza egin zituen: bat monografiarena eta 2 seriatuena.

Kultura Ondarearen Liburutegitik baztertutako funtsetatik Artiumera dokumentu eta katalogoak bidali ziren ekainean (280 dokumentu).

03.5. MAILEGUA

• **Erabiltzaileak.** Liburutegiak 4.378 irakurle ditu alta emanda. Sare osoaren erabiltzaileak dira. Aurten 164 alta izan dira, eta horietatik 34 Liburutegi Nagusian.

Maileguak: 1.325

Itzulketak: 1.235

• **Liburutegien arteko mailegua:** liburutegien arteko 7 mailegu kudeatu dira, bai Jaurlearitzako langileek eskatuta, bai Jaurlearitzatik kanpoko liburutegiek eskatuta.

03.6. ERREPROGAFIA ZERBITZUA IRAKURKETA-GELAN

Paperean ateratakoak nahiz digitalizatuak, guztira **1.688** izan dira.

03.7. DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

• 2020. urtean, **Dialnet Plus zerbitzuak 1.911** aldizkari-artikulu edo monografia-kapitulu eskari izan ditu. Erantzuteko batez besteko denbora, hau da, erabiltzaileak eskaria egiten duenetik dokumentua bidaltzen den arte igarotako denbora, 1,53 egunekoa izan da. 163 eskatzaile izan dira guztira; horietatik 86 (% 52,7) emakumeak eta 77 (% 47,3) gizonak.

Dokumentuak aurkitzeko, eskariak egin diren aldien %17an (323 eskari) Jaurlearitzatik kanpoko liburutegietara jo behar izan da, batez ere unibertsitateetako liburutegietara. Interneten %7a aurkitu da (94 eskari). Gainerako eskariak (1.458, %76) Eusko Jaurlearitzako liburutegietan ebatzi dira.

• **Dokumentazio-eskariak.**

2020an, 179 informazio edota dokumentazio-eskaera ebatzi dira

03.8. SARE SOZIALETAN PARTE-HARTZEA: TWITTER

Liburutegi Nagusiak 698 txio argitaratu zituen urtean zehar. Jarraitzaile kopurua, guztira: 877

03.9. NOBEDADEAK

Hilabete hasieran, irakurgelan sartu diren nobedadeak kontsultatzeko apalategia eguneratzen da, eta buletin bat editatzen da. Pandemiak sortutako egoera dela-eta, apiriletik ekainerako nobedadeak ez ziren eguneratu. Uztailetik aurrera ekin zitzaion berriro zerbitzuari.

03.10. BIBLIOGRAFIA BULETINAK eta IHS

IHS espezializatuak egiten dira aldizkari-zenbaki berriak jasotzen diren bakoitzean, eta erabiltzaile talde mugatu bati bidaltzen zaizkio, hala eskatuta:

Honako IHSak: *Kontabilitate* Aldizkaria, *Lehiaren eta Banaketaren Zuzenbideari buruzko* Aldizkaria, *Lan Arriskuen Kudeaketa Praktikoaren* Aldizkaria, *Kooperatiba Sozietateen* Aldizkaria, *DSI Zerga, Lan eta Zuzenbide* Aldizkaria, *ICADE* Aldizkaria, *Europar Batasunaren Legea eta Gizarte Jardueraren* Aldizkaria. Guztira, 30 buletin bidali dira.

Azken eskuraketak: Bibliotekak Sarearen Opac sisteman bibliografia bat sartzen da hilero, azken hilabetean sartutako dokumentuak jasotzen dituena.

Jasotzea eskatzen duten Eusko Jaurlaritzako langile guztiei Liburutegi Nagusiaren azken eskuraketen hautaketa jasotzen duen *Nobedadeen Hautapen-Buletina* (bi hilean behin), gaiaren arabera antolatuta, bidaltzen zaie. Guztira 826 pertsonari.

03.11. BESTE JARDUERA BATZUK

Liburutegiak Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzuarekin lankidetzan dihardu, honako hauek eginez: Bibliotekonomia arloko aholkularitza, aurre-argitalpenen berrikuspena, CIP fitxa eta argitalpenen katalogazioa.

2018an, erakunde-orria aktibatu zen Dialnet Plusen, eta Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde autonomoetako afiliatutako egileekin hasi zen lanean. 2020an, Eusko Jaurlaritzako langileen Dialneteko egileen profilak eguneratzen jarraitu da, eta 180 egile identifikatu dira.

Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiak 2016tik 2020ra bitartean argitaratutako 156 monografia kargatu dira Dialneten datu-basean.

03.12. PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Pandemiaren ondorioz, ez da bisita gidaturik egin (Liburutegiko zerbitzu eta jardueretarako sarrera), eta erabiltzaileen prestakuntza egiten jarraitzen da, aurrez aurrekoak izan gabe, telefono bidezko edo posta elektronikoko kontsulta guztiei erantzuten zaizkie.

03.13. LANGILEEN PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Euskara formazioa (Elebi) bertan behera geratu da.

Liburutegiko bost teknikari izan dira IVAPek maiatzean antolatutako “Jabetza Intelektuala Liburutegi eta Artxiboetan: sen ona, jardunbide egokiak eta kasuen ebazpena” ikastaroan.

Liburutegiko lau teknikari izan dira IVAPek azaroan antolatutako “Baliabide elektronikoen kudeaketa eta antolaketa” ikastaroan.

04/ Bibliotekak Sarea

2018an, Bibliotekak Sarearen katalogoa Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearekin bateratzea erabaki zen. Normalizazio prozesu luze baten ondoren, aurtengo azaroan prozesua arrakastaz burutu da. Liburutegi Nagusiak eta Bibliotekak Sareko gainerako sailtako liburutegiek bat egin dute Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearekin, eta, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako langileei eta herritarrei katalogo bateratu baterako sarbidea ematen zaie.

Aurretik, Kultura Ondarearen Liburutegiko funtsak sartu ziren Liburutegi Nagusian. Lehenengo fasean, katalogoan gorde beharreko argitalpenak hautatu ziren. Hautaketa hori egin ondoren, sartu gabeko gainerako liburuak xahutu egin ziren. Horretarako, Ikertu enpresaren laguntza izan genuen. Urrian Katalogotik Liburutegia eta sukurtsala eta xahututako dokumentu guztiak ezabatu ziren.

Era berean, Araubide Juridikoaren Liburutegiko funtsen zati handi bat sartu da. Liburutegia eta sukurtsala saretik ezabatu dira, eta Liburutegi Nagusitik bereizitako kokaleku gisa identifikatu dira.

LEGESAREAKo lantaldearekin lankidetzan, Informazio Juridikoaren Eguneroko Buletin Elektronikoa egin eta zabaldu du 6 astez.

Liburutegiak eta bere langileek zerbitzuak eta prozesuak optimizatzeko sortutako hainbat lantaldetan parte hartzen dute: eskuratze eta Zirkulazio Taldea, Agintari Taldea,

Seriatuen Taldea, Katalogazio Taldea, Opac Taldea eta Web-Presentzia Taldea, SharePoint-en Taldea, Aliantza Taldea, Gordailu Taldea, Legesarearen Taldea, Artikuluaren Banaketa Taldea eta Estatistika Taldea. Bibliotekak sarea desagertzean, 2021eko otsailean egingo den hurrengo eta azken urteko bileran elkarlan honen etorkizuna eta alternatibak planteatuko dira.

Liburutegi Nagusiak koordinatu eta babesten du **Bibliotekak Sareko agintarien katalogoa arazteko proiektuan** lan egiten duen pertsona. 2020. urte osoan gai eta titulu uniformearen autoritateak sortu dira, Irakurketa Sare Publikoarekin bat egite aldera. Azaroan, bat egin zenetik, lanak aurrera jarraitu du, hautemandako kopiak berrikusten eta egile pertsonalen sarrerak osatzen, sare berriak ezartzen dituen arauak betetzeko.

05/ Kanpo-lankidetz

Beste hamar erakunderekin lankidetzan jarraitzen dugu “Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoa” izenekoan. Partzuergo hau 1991n hasi zen euskal prentsa digitalizatzeko asmoz, eta, horrela, haien atzera begirako biltegiatze-kostuak saiheste aldera, baita bertara sartzea erraztuz ere. Akordio horretan, Liburutegi Nagusiak El Mundo egunkaria gorde eta koadernatzen du. Abenduan egindako “Partzuergoaren” urteko bileran erabaki garrantzitsuak hartu ziren etorkizunerako.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, zerbitzu berri baten bidez (Euskariana), bere gain hartuko du proiektuaren ardura, eta era berean, formatu digitaleko egunkariak lortuko ditu Lege Gordailuaren bidez, akordioak egingo ditu bitartekoekin, eta patzuergoko liburutegiei off-line ordenagailu batzuetan kontsulta egitea erraztuko du. Partzuergoak Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea adostu zuen etorkizuneko proiektuetan, eta paperezko eguneroko prentsa zaintzen jarraituko du, orain arte bezala.

Liburutegi Nagusiak Bilgunea Katalogo Kolektiboan parte hartzen du. Katalogo hori Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakunde publikok zein pribatuk osatzen dute, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatzen du

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 19a.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021